



Compartiendo
el viaje *
#sharejourney

'Bidaian elkarrekin'

kanpainari buruzko ohiko galderak

1. Zer da 'Bidaian elkarrekin' kanpaina?

Bidaian elkarrekin kanpainaren funtsezko balioa giza familia bakarra, mundu osokoa eta bat eginda ikustea da. Lekualdatzen diren pertsonekin batera egiten dugun bidaiari erreparatzen diogu, bai eta irteera-, igarobide- eta harrera-komunitateei ere. Gure sentsibilizazio-kanpaina publikoak aukerak eta espazioak sustatzen ditu, migratzaileak eta komunitateak bil daitezen eta istorioak eta esperientziak parteka ditzaten, helburu hau lortzeko: migratzaile eta komunitateen arteko loturak sendotzea.

2. Nork zuzentzen du kanpaina?

Caritas Internationalisek zuzentzen du kanpaina. Mundu mailako konfederazio bat gara, garapenerako 165 erakunde nazionalen osatuta. Eliza katolikoaren karitatearen besoa gara, eta gure konfederazioak elizbarrutietan, nazioetan, eskualdeetan eta nazioartean lan egiten du, hainbat gai jorratuz: pobrezia, migrazioa, klima-aldaketa, gosea, osasuna, larrialdiak eta abar.

3. Zer eginkizun du Frantzisko aita santuak kanpainan?

Frantzisko aita santuak kanpaina abiaraziko du Done Petri plazan, 2017ko irailaren 27an. Egun horretan, aita santuak mundu osoa gonbidatuko du 'bidaia elkarrekin' egitera errefuxiatuekin eta migratzaileekin batera.

4. Zergatik egiten du Caritasek kanpaina hori?

Frantzisko aita santuak askotan aholkatu du elkartzearen kultura sustatu behar dela, gaur egungo munduan axolagabetasunaren kulturari aurre egiteko. Besteen begietatik ikustea esan nahi du horrek, begiak itxi beharrean: "Ikustea soilik ez, baizik eta begiratzea. Entzutea soilik ez, baizik eta aditzea. Topo egin eta aurrera egitea soilik ez, baizik eta gelditzea. Eta "hau zoritxarra, jende gaixoa" soilik ez esatea, baizik eta errukiz jokatzeari" - Frantzisko aita santua.

5. Zenbat denbora iraungo du kanpainak?

Bidaian elkarrekin kanpaina 2017ko irailaren 27an hasiko da eta 2019ko irailera arte iraungo du.

6. Nork hartuko du parte?

Caritasen erakunde guztiak gonbidatuta daude kanpaina sustatzera, tokian tokikoak nahiz nazio mailakoak, ekitaldiak eta jarduerak antolatuz. Apezpiku-konferentziak eta erlijio-erakundeak gonbidatuta daude gure materialak beren komunitateetan patekatzera.

7. Zer aldaketa eskatzen da?

Komunitate sendoagoak eta gizarte inklusiboagoak eraikitzen lagundu nahi dugu. Kanpainak "elkartzearen kultura" bultzatzen du. Gure helburua espazioak eta aukerak sustatzea da, migratzaileak bil daitezen eta elkarrengandik ikas dezaten.

8. Nork egin dezake bat kanpainarekin?

Interesa agertzen duen edonork egin dezake bat kanpainarekin. Emigrazioan esperientzia duten pertsonak gonbidatzen ditugu bereziki, beren bidaia partekatuzera gonbida daitezkeenak, bai migratzaileak, bai migrazioak eragindako komunitateak.

9. Zergatik egin behar dut bat kanpainarekin?

Emigrazioaren fenomeno asko axola bazaizu eta gure munduan gertatzen ari denak jakin-mina pizten badizu, kanpaina honetan zure ekarpena egin dezakezu, alor guztietan. Zeure baitako zerbait partekatzeko aukera duzu, adiskidetasunaren truke, aurkikuntza-bidaia batean.

10. Zer ekarpen egin dezaket?

Ekitaldi bat antola dezakezu zure komunitatean. Otoitz egin dezakezu. Emigrazioaren alde egin dezakezu zure gobernuaren aurrean. Gure materialak parteka ditzakezu sare sozialetan, edo argazki bat egin, besoak zabalik, kanpainaren alde, eta komunikabide sozialeko zure kontuan partekatu. Migrazio-proiektuetarako dohaintzak egin ditzakezu, elizbarrutiko eta nazioko Caritasen bitartez.

11. Zer baliabide eskaintzen zaizkie kanpainaren jarraitzaileei?

Kanpainan ekintzak egiteko gida bat dugu, eta lagungarri izango duzu zure komunitatea, zure eskola edo zure parrokia mobilizatzeko. Kanpaina sustatzen lagunduko dizuten beste baliabide batzuk eskura dituzu hemen: journey.caritas.org